R.A.S.D.
DELEGACIÓN DEL F. POLISARIO EN EUSKADI
EUSKADIKO F. POLISARIOAREN ORDEZKARITZA

Las Instituciones Vascas participantes en la visita de solidaridad a los campamentos de población refugiada saharaui en Tinduf (Argelia), entre los días 27 de abril y 1 de mayo de 2006, en representación propia y, muy en especial, en representación de la Sociedad Vasca a la que representan, tienen la enorme satisfacción de:

**REAFIRMAR** los principios del acuerdo de hermanamiento que en su momento y a lo largo de más de 15 años, han ido sellando con las diversas wilayas y dairas saharauis, el compromiso político firme de involucrarse con el logro de la soberanía del Pueblo Saharaui, así como en la participación activa y solidaria, consolidada en el tiempo, para que la supervivencia tanto en los campamentos de población refugiada como en los territorios ocupados, sea lo más digna posible como Pueblo y, sobre todo, como personas.

**REITERAR** a toda la población saharaui, el compromiso firme y contundente de las Instituciones Vascas de no cejar en el empeño hasta que su pueblo hermano, el Pueblo Saharaui, consiga su plena libertad, a través de la única solución democrática posible, esto es, la aplicación del derecho de autodeterminación que legítimamente corresponde al Pueblo Saharaui, mediante la celebración de un referéndum libre, democrático y transparente.

**REFORZAR** nuestra solidaridad y cercanía con la población saharaui residente en los territorios ocupados por Marruecos ante la sistemática violación de los derechos humanos y libertades fundamentales que viene sufriendo por parte de la dictadura alaui.

Las Instituciones Vascas, en este acto solemne de renovación de hermanamientos con el Pueblo Saharaui, tienen a bien:

**ASUMIR** el protocolo de solidaridad que ahora establecemos entre el Gobierno Saharaui y las Instituciones Vascas.

PROTOCOLO DE SOLIDARIDAD

Como es sabido, la solidaridad institucional y social vasca con la RASD afecta a diferentes ámbitos: campañas de sensibilización de

Portal del Rey, 8 - 2° D • Teléfono y Fax 945 25 20 69 • 01001 VITORIA-GASTEIZ

la opinión pública vasca y/o solidaridad política, recogidas de alimentos y otros bienes de primera necesidad y su envío mediante caravanas, acogida de niños y niñas durante los meses de verano y la cooperación al desarrollo en sus diferentes ámbitos: subvenciones a proyectos, convenios específicos, ayudas directas, etc.

Como vemos, el campo de actuación es amplio y se ve afectado por dificultades de distinta índole, pero nuestro objetivo común de acompañar al Pueblo Saharaui hasta el día del ansiado retorno a su país y, paliar mientras tanto las durísimas condiciones de vida que hoy padece a ambos lados del muro de la vergüenza, debe inspirar todas nuestras acciones y con la voluntad y el esfuerzo de todos y todas estamos seguros que podremos lograr una mayor y mejor solidaridad con la RASD.

PRINCIPIOS RECTORES

- Si la Institución no lo estuviere, hermanarse con una daira o wilaya saharaui como símbolo de solidaridad con este Pueblo.
- Dichos hermanamientos deben concebirse como una oportunidad para facilitar, junto a las diferentes entidades solidarias con la RASD, encuentros e intercambios con la población y autoridades de las dairas o wilayas e informar y sensibilizar a la ciudadanía sobre la situación del Pueblo Saharaui y la evolución del Plan de Paz auspiciado por las NNUU.
- Promover la coordinación interinstitucional en todas las actividades que desde el País Vasco se impulsan a favor del Pueblo Saharaui.
- Apoyar material y económicamente al Pueblo Saharaui para facilitar su supervivencia hasta el ansiado ejercicio de su derecho a la autodeterminación.
- Apoyar, a través de los instrumentos de coordinación existentes, proyectos de cooperación conjuntos que multipliquen los efectos de nuestra solidaridad. Y evitar de este modo aquellas ayudas directas que, bien intencionadas,
-

Portal del Rey, 8 - 2º D • Teléfono y Fax 945 25 20 69 • 01001 VITORIA-GASTEIZ

R.A.S.D.
DELEGACIÓN DEL F. POLISARIO EN EUSKADI
EUSKADIKO F. POLISARIOAREN ORDEZKARITZA

reducen el impacto de la cooperación sobre el conjunto de la población refugiada.

- Impulsar de forma conjunta, a través de los instrumentos de coordinación existentes, actuaciones complementarias frente a situaciones de emergencia o imprevistos que genera la precaria situación en la que se ve obligada a vivir la población saharaui.
- Prestar una especial atención a la situación y necesidades específicas de la mujer saharaui, pilar fundamental de la supervivencia del Pueblo Saharaui a lo largo de todos estos años de conflicto.
- Impulsar acciones conjuntas de denuncia y solidaridad política, tales como, la aprobación de mociones, el apoyo a la Delegación del Frente POLISARIO en Euskadi, la realización de viajes de solidaridad a los campamentos de población refugiada saharaui y a los territorios ocupados por Marruecos.
- Velar por el respeto de los derechos humanos y las libertades fundamentales en los territorios ocupados por Marruecos.

Como muestra de solidaridad y ternura con un pueblo hermano, hoy 29 de Abril de 2006, en nombre de las instituciones representadas y a través de ellas, del conjunto del Pueblo Vasco, firmamos esta declaración:

Mohamed El Mamun Ahmed Brahim
Delegado del Frente POLISARIO en Euskadi

Nekane Alzelai
Presidenta Intergrupo Parlamentario Vasco, Paz y Libertad para el PS

R.A.S.D.

DELEGACIÓN DEL F. POLISARIO EN EUSKADI
EUSKADIKO F. POLISARIOAREN ORDEZKARITZA

Igor Irigoyen
Dirección de Cooperación del Gobierno Vasco

Txomin Aurrekoetxea
Coordinación Instituciones Solidarias

Izaskun Moyua
Directora de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer

Rosa Ostogain
Alcaldesa de Berriz y Presidenta de EUSKAL FONDOA

Gualberto Atxurra
Alcalde de Muskiz y Vicepresidente de EUDEL

2006ko apirilaren 27tik maiatzaren 1era Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetara egindako elkartasun bidaian parte hartu duten Euskal Instituzioek, euren izenean eta, bereziki, ordezkatzen duten euskal gizartearen izenean, atsegin handiz

**BERRINDARTU** nahi dute, batetik, bere egunean eta 15 urteren zehar, Saharar Herriaren burujabetzaren lorpenean tarteko izateko konpromiso politiko irmoa hartuz, hainbat saharar wilaya eta dairekin ziligatu diren senidetasun akordioen hastapenak eta, bestetik, urteetan sendotu den gure partehartze bizia eta solidarioa errefuxiatuen kanpamentuetan eta okupatutako lurraldeetan, Herri eta pertsonak diren heinean, biziraupena ahalik eta baldintza duinenetan izan dezaten.

**BERRETSI** egin nahi die saharaui biztanleriari Euskal Instituzioen konpromiso irmo eta erabatekoa anai dugun euren herriak, Saharar Herriak hain zuzen, askatasun osoa lor dezan, berari soilik dagokion legezko autodeterminazio eskubidearen ezarpena dela bide, erreferendum aske, demokratiko eta garden baten bitartez.

**BERRINDARTU** Marokok okupatuta dituen lurraldeetan dagoen saharaui biztanleriarekiko gure elkartasuna eta hurbiltasuna, ematen ari den giza eskubideen eta oinarri-oinarrizko askatasunaren urraketa sistematikoaren aurrean.

Saharar Herriarekiko senidetasuna berresteko ekintza irmo honetan Euskal Instituzioek, ontzat hartzen dute:

**ONARTZEA** Polisarioaren Frontearen eta Euskal Instituzioen artean orain ezartzen dugun solidaritate protokoloa:

SOLIDARITATE PROTOKOLOA

Jakina denez, erakunde zein gizarte mailako elkartasuna SEADrekin esparru ezberdinei erasaten die: euskal iritzi publikoa sentsibilizatzeko kanpainak edo/eta solidaritate politikoa sentikortzekoak, behar- beharrezko jaki eta bestelakoen batzea eta

R.A.S.D.
DELEGACIÓN DEL F. POLISARIO EN EUSKADI
EUSKADIKO F. POLISARIOAREN ORDEZKARITZA

berauen bidaltzea karabanetan, udan zehar haurren abegia eta eremu desberdinetan garapenerako kooperazioa: egitasmoetarako dirulaguntzak, itun bereziak, laguntza zuzenak eta abar.

Dakusagunez, jardun esparrua zabala da eta bestelako motako zailtasunek eragiten diote, baina Saharar Herriarekin egotea euren lurraldera itzuli arte eta, bitartean lotsaren harresiaren bi aldeetan jasaten dituzten bizi baldintza gogorrak arintzen laguntzearen gure helburu amankomunak bideratu eta inspiratu behar dituzte gure ekintza guztiak; eta guztion borondatearekin eta guztion ahaleginarekin SEADrekiko elkartasun handiagoa eta hobea lortuko dugulakoan gaude.

PRINTZIPIO GIDARIAK

- Erakundeak daira edo wilaya saharaui batekin senidetasuna egin gabe balu, senidetasuna egin, Herri honekiko elkartasunaren adierazle gisa.
- Senidetasun akordio hauek daira eta wilayetako bizilagunen eta agintarien arteko topaketak eta trukeak egiteko aukera bezala hartu behar dira eta, baita ere, herritarrei Saharar Herriak bizi duen egoeraren berri eman eta sentsibilizatzeko eta Nazio Batuek babestutako Bake Planaren eboluzioa jakinarazteko.
- Euskal Herritik Saharar Herriaren alde egingo diren ekintza guztietan erakunde arteko koordinazioa sustatu.
- Saharar Herria materialki eta ekonomikoki lagundu biziraupena arintzeko, irrikazko autodeterminazio eskubidea lortzen duten bitartean.
- Dauden koordinazio tresnen bitartez gure solidaritatearen ondorioak ugalduko duten kooperazio egitasmo bateratuak sostengatu. Era honetara, intentzio onez egin arren, errefuxiatutako populazio osoarekiko kooperazioaren eragina murrizten duten laguntza zuzenak ekidin egiten dira.
- Era bateratuan bultzatu, dauden koordinazio tresnen bitartez, saharar herritarrek bizi duten egoera eskasaren ondorioz gerta daitezkeen larrialdiko egoeren aurrean egin beharreko ekintza osagarriak.

Portal del Rey, 8 - 2º D • Teléfono y Fax 945 25 20 69 • 01001 VITORIA-GASTEIZ

- Arreta berezia jarri saharar emakumeen berariazko egoera eta beharrizanei. Izan ere, haiek dira Saharar Herriaren biziraupenaren nahitaezko mugarri gatazka urte guzti hauetan.

- Salaketa eta solidaritate politikorako ekintza bateratuak bultzatu. Esaterako, mozioen onarpenak egin, Euskadin dagoen Polisario Frontearen Ordezkaritzari laguntza eman, saharar errefuxiatuen kanpamentuetara eta, baita ere, Marokok okupatuta dituen lurraldeetara egiten diren elkartasun bidaietan parte hartu.
- Marokok okupatuta dituen lurraldeetan giza eskubideak eta oinarri-oinarrizko askatasuna errespetatzen direla zaindu.

Senide dugun herriarekiko elkartasun eta samurtasun adierazle gisa, gaur 2006ko apirilaren 29an, ordezkatutako erakundeen izenena eta eurak bitarteko, Euskal Herri osoaren izenean, honako adierazpena sinatzen dugu:

Mohamed El Mamun Ahmed Brahim
Polisario Frontearen Ordezkaria Euskadin

Nekane Alzelai
SHren Bakea eta Askatasuna Eusko legebiltzarreko Taldeartekoaren Presidentea

Igor Irigoyen
Eusko Jaurlaritzako Kooperazio Zuzendaritza

Txomin Aurrekoetxea
Elkarkideak diren Instituzioetako Koordinazioa

R.A.S.D.

DELEGACIÓN DEL F. POLISARIO EN EUSKADI
EUSKADIKO F. POLISARIOAREN ORDEZKARITZA

Izaskun Moyua
EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaria

Rosa Ostogain
Berrizeko alkatea eta EUSKAL FONDOaren Presidentea

Gualber Atxurra
Muskizeko alkatea eta EUDELeko Presidenteordea

Portal del Rey, 8 - 2° D • Teléfono y Fax 945 25 20 69 • 01001 VITORIA-GASTEIZ